



Enegarrenez, protestan

LABI batzordeak erabakiko duenaren zain, herriko ostalari ugari negoziak berrieki, baina bizi duten egoera salatzen jarraitzen dute / 4

TXINTXARRI

Girorik falta ez dadin

Euskal Inauteri alternatiboak ospatu ostean, mozorro lehiaketa jarri du martxan Ttakun KEK / 7

Skate-parke berria eraikitzeko parte-hartze prozesua abiatu du Lasarte-Oriako Udalak / 2

'Herrigintzen' egitasmoa martxan jarri, eta lau mahai-inguru antolatu ditu EH Bilduk / 5

Iragan hurbileko borroka batzuk ezagutu dituzte herritarrek kultur etxean / 6

Ostadar Atletismo eta Buruntzaldea IKTKo kideek hainbat marka ondu dituzte kontril probetan / 10

zerbitzu mistoa

Betileetako liftinga 17 euro

Baita betileak ilez ile

Lucia ile-apaindegia
Kale Nagusia 67, LASARTE-ORIA
Hitzordua hartzeko; deitu edo 688 85 17 50

Zatoz gu ezagutzera!

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

Merkatuko preziorik onenak bermatzen dizkizugu!

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
www.minialmacenes-barne.com

Skate-parke berrirako, parte-hartze prozesua

Skate-parke berria egiteko asmoa agertu du Lasarte-Oriako Udalak, eta, hori lantzeko, parte-hartze prozesua abiatu du. Hilaren 16ra arte parte hartu ahal izango dute 10 eta 17 urte bitarteko gazte lasarteoriarrek, datorren asteartera arte

Txintxarri

Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak, Gazteria eta Kirol Saileko arduradun Txus Alonsok eta Herriarren Partaidetza Saileko arduradun Nagore Duranek, herrian skate-parke berri bat eraikitzeke parte-hartze prozesua aurkeztu dute.

Duela hogeitatu urte eraiki zuten Oriarte Institutuaren aurrealdean skatean ibiltzeko parkea eta, dagoeneko "zaharkitua" geratu dela argudiatuta, berria eraikitzeke asmoa agertu dute udal ordezkariak. Horrela, berria eraikitzen hasi baino lehen, skate-parkeko erabiltzaile izan daitezkeen gazteei galdetu nahi diete, euren beharrak zeintzun diren jaso eta skate parke berria eraikitzeke. Jakin badakite, gainera, gaur egungo skate-parkeen estiloa bestelakoa dela. "Orain, monopatinek, patinetek eta BMX bizikletek ere erabiltzen dituzte skate-parkeak, eta gaur egun dutena baino espazio gehiago behar dute".

Espazio berriaren nondik norakoak diseinatzeke, ordea, parte-hartze prozesu bat abiatu dute udaletik. 10 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta dagoeneko martxan dagoela adierazi du Nagore Duran Herriarren Partaidetzarako



Udal ordezkariak, parte-hartze prozesua aurkezten. TXINTXARRI

zinegotziak. Gaineratu du otsailaren 16an amaituko dela epealdi hori eta, gero, ekarpen guztiak jaso ostean, prozesu horretan parte hartu duten herritarrekin bilera bat egingo dutela proposatu dituzten ideiak elkarbanatzeko. Parte-hartze prozesuan parte hartu nahi dutenek partehartzea@lasarte-oria.eus helbidera idatzi dezakete. Momentuz, hamabost proposamen jaso dituzte.

Skate-parke berria, leku berrian

Skate-parke berriak orain arteko ez beste kokaleku bat izango du. Orain arte Oriarte Institutuaren

aurreko lur eremu batean egon da, baina, urte amaierarako eraiki nahi duten berria, Zabaleta auzora lekualdatuko dute; pilotalekuaren ondora. Oraingo parkeak baino 300 metro koadro gehiago izango ditu, 900 metro koadro guztira.

Horrela, oraingo skate parkean parkour parke bat egitea aurreikusten du udalak.

Txus Alonso Gazteria eta Kirol Saileko arduradunak ere hitz egin du prentsaurrekoan. Azaldu du Lasarte-Oriako kirolaren alorreko egungo joerekin bat datozen kirol instalazioak edukitzea dela udalaren helburua: "Skatea kirol olimpikoa da jada".

Udalak zergak ordaintzeko egutegi fiskala ezagutarazi du

Lasarteoriarrek kutxazainetan, Internet bidez, kreditu txartelarekin edota kontutik zuzenean ordain ditzakete tasak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak udal zerga eta prezio publikoen 2021. urteko egutegi fiskala ezagutarazi du. Bertan, ordainketak egiteko epeak zehaztu dituzte.

Ordainketetarako epeak

Urteko aldizkakotasunaren zergen barruan, ibilgailuen gaineko zerga martxoaren 1etik apirilaren 15era ordaindu beharko da. Zaborren tasa, apirilaren 1etik maiatzaren 15era; Ondasun Higiezinaren gaineko zerga maiatzaren 15etik ekainaren 30era; ekonomi jardueren gaineko zerga urriaren 1etik azaroaren 10era, eta, IBIen tasa eta tasa orokorra urriaren 1etik azaroaren 15era.

Lauhileko aldizkakotasunaren tasei dagokionez, hauek dira datak. Ura eta estolderia: 2020ko hirugarren lauhilekoa, otsailaren

1etik martxoaren 15era. 2021eko lehenengo lauhilekoa, ekainaren 1etik uztailaren 15era, eta, bigarren lauhilekoa, berriz, urriaren 1etik azaroaren 15era.

Hilabeteko aldizkakotasun tasen barruan, dantza eta balleta, hilabete bakoitzeko aurreko hilaren 15etik 25era. Etxe-laguntza eta babespeko etxebizitzaren egonaldia likidatutako hilabetearen ondorengo hilean, eta ingurunean mantentzeko programa, Udal Musika Eskola eta Euskaltegia, berriz, hil bakoitzaren 25. egunetik 30era bitartean.

Azoka ibiltariaren tasen datak hauek dira: bigarren hiruhilabetea apirilaren 1etik 25era; bigarrena uztailaren 1etik 25era, hirugarrena uztailaren 1etik 25era eta laugarrena urriaren 1etik 25era.

Udalak gogorarazi du *Ordainketa malgua* sistema duela martxan; ordainagiriak bitan ordaintzeko.

Motel, baina jaisten ari da intzidentzia tasa Lasarte-Orian

Egunez egun kasuak atzematen jarraitzen dute gure herrian -azken astean, 74; eguneko, batez beste, 9,25 positibo-, baina badirudi kopuruak apaltzen ari direla, motel, baina apaltzen, azken finean. Intzidentzia tasa metatuan eragin du horrek, eta oso altua izaten jarraitzen duen arren, 677,34koa izan da otsailaren 10ean, asteazkena

-datu horiek izan dira TXINTXARRI-K kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik-; duela astebete, berriz, 803,36koa. Hala ere, 500 kasuko mugak urrun samar jarraitzen du oraindik.

Lasarte-Oriaz gain, eskualdeko beste bi herrik jarraitzen dute gune gorrian: Astigarragak eta Usurbilek. Andoain, Hernani eta Urnieta, berriz, eremu laranja igaro dira, azken biek 500eko mugatik gertu jarraitzen duten arren.

Edukiontzia egokitu berriak herriko zenbait gunetan

Udalak bederatzi edukiontzia erosi eta herriko zenbait gunetan jarri ditu, zaborra eroso bota ezin dutenek ere aukera izateko

Txintxarri

Hipodromo etorbidean eta Ola zein Buruntza kaleetan edukiontzia berriak ezarri ditu Lasarte-Oriako Udalak. Kontainer horiek, hondakinak botatzeko ohiko zulo eta sarbideak ez ezik, leihotxo

batzuk dauzkate apur bat beherago, mugikortasun murriztua duten pertsonak edo etxeko txikiak zein adineko pertsonak zabor-poltzak "erosoago" bota ditzaten. "Agenda 21 egitasmoari buruz 2019. urtean egin genuen saioan

proposatu ziguten hori ikasleek; uste dugu ongi funtziona dezakeela". Udalak, momentuz, bederatzi edukiontzia erosi dizkio San Marko mankomunitateari, "proba modura". Aurreratu du apirilean egingo duela lurrazpiko zaborrontzien gaineko kontsulta, eta, galdeketa hori egin bitartean, lurgaineko kontainerrak nolakoak izango lirakeen erakutsi nahi duela. "Mankomunitatean dauden udaletatik, Lasarte-Oriakoak bakarrik jarri ditu edukiontzia berriak", azpimarratu du udalak.



Valdivia eta Mateos, Ola kalean dagoen edukiontzietako bat erakusten. TXINTXARRI



Eskualdeko hainbat enpresa eta eragilek 2019an abiatu zuten Beterri Saretuz egitasmoa, instituzioen laguntzarekin. BETERRI SARETUZ

Enpresak saretzen, parte-hartzearen bidez

Bigarren ikasturteari ekin dio Beterri Saretuz programak: eskualdeko enpresa, proiektu, eragile nahiz tokiko erakundeak batzeko egitasmoa da. Iaz hasitako bidetik, "sarea indartzen jarraitu" nahi dute. Otsailaren 11n egin dute aurreneko saioa, Usurbilen

Txintxarri

Parte-hartzean oinarritutako enpresen ekosistema bat sortzea xedea du Beterri Saretuz programak. 2019an abiarazi zuten eskualdeko hainbat enpresa eta eragilek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beterri-Buruntza eskualdeko udalen laguntzarekin. Elkarlanean sakontzeko, bigarren ikasturteari ekingo diote ostegunean, bi erronka nagusirekin: enpresen beharrak asetzera eta sarea indartzen jarraitzea.

Eskualdeko enpresa, proiektu, eragile nahiz tokiko erakundeak batzeko egitasmoa da Beterri Saretuz. Iaz hasitako bidetik, "sarea indartzen jarraitu" nahi dute, beti ere, ekonomia eraldatzailearen esparruko parte-hartzeari buruzko begiradarekin, hau da, lurraldearekiko atxikimenduz. Eskualdean eragitea du helburu, horregatik, enplegu-politiketan dabilen tokiko erakundeak eta gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituztenak gonbidatu dituzte

parte hartzera, ekosistemari bultzada eman diezaioten.

2020ko jardunaldietan "esperientziak ezagutu, elkarren berri izan eta zehar lerro batzuk" finkatu zituzten, urrian aurkeztutako parte-hartzea bultzatzeko gida edo gakoetan jasoak, eta, halaber, enpresen epe laburreko zein luzeko beharrak ere identifikatu zituzten. Azken horiei helduko diete aurtengoan, lehentasuneko beharrak asetzen saiatuko baitira.

Horretarako, otsailtik ekainera arte luzatuko den egitarau zabala atondu dute, bi motatako saioekin. Batetik, beharrei lotutakoak; eta, bestetik, saretzea sustatzekoak. Lehen multzokoetan, esperientzia eta metodologiak partekatuko dituzte, eskualdeko nahiz kanpoko zenbait proiektutako kideen eskutik, hala nola, Bidasaldeko BDS Koop eraldaketa fabrika, Goierriko Biziola sarea eta Hernaniko Maitelan kooperatiba, besteren artean. Bigarren multzokoetan, aldiz, elkar

ezagutzaren eta interkooperazioaren bidez sarea indartzen jarraituko dute. Lehen saioa ostegunean, hilak 11, egin dute Usurbilen, "sareak formalizatu eta harremanak sakontzeko".

Hurrengo saioak

Egitarau osoa www.txintxarri.eus atarian kontsulta daiteke.

- **Martxoak 11. Beharrak asetzeko saioa.** Maitelan proiektua ezagutzen.
- **Apirilak 8. Saretze saioa.** Ekonomia Sozial Eraldatzailea ardatz gisa duten beste eskualdeetako esperientziak ezagutzeko.
- **Apirilak 29. Beharrak asetzeko saioa.** Erakunde mailako partaidetza maila neurtzeko tresnak.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Tostadak restopean

994. Google Mapsen arabera, bide laburrenetik joanda, 994 kilometro daude Lasarte-Oriatik Almeriara. Hamar ordu eta bi minututan han geundeke atsedenerako etenik egingo ez bagenu. Almeria: eguzkia eta hondartza. Edonork hartuko lituzke orain egun batzuk bertan. Hiriguneko kaleetan pasiera, hondartzan osteratxoa, Alcazarretik ilunabarra ikustea... Ez maskararik, ez neurri murriztailerik. Eguraldi ona, turistak —baina ez gehiegi—, eta Andaluzia aldeko giro alai hori. Horrela gogoratzen dute Almeriako kosta nire kuadrillako batzuek. Ni ez naiz inoiz egon, baina haietako pare bat bai. Zazpi edo zortzi urte izango zituzten bata Roquetas de Marrera eta bestea Cabo de Gata joan zirenean.

Egutegiak dioenez gaur bezalako egun bat izan zen. Zehatzago: egin bi aste eta bi egun aurrera, eta, ondoren, hemezortzi urte atzera. Zortzi urte bete nituen egun hartan. Alegia: muturra nozilla sandwicharekin zikinduta nuela, eta nire lagunekin altxorren bila jolasten arituko nintzela arratsaldeko 19:00ak aldera. COVID-19agatik bisitak bertan behera geratu ez balira, gaur bertan ere, ordu horren bueltan aterako lirateke ehundaka euskal herritar Andaluziara—Kordobara, Puertora...—, edo Valentziako Picassent ingurura eta Galiziara. Baina euskal herritar horiek Alcazar eta itsasaldeko paseo gutxi. Batzuentzat 1.988 kilometrora dago Almeria, eta 24 orduetatik hogeitaseko dituzte autoan.

2003ko otsailaren 28an ez dakit nik Google Maps existitzen zen ere. Seguraski urtebetetzearen emozioengatik lehertuta egongo nintzen ordurako, eta Albacete non zegoen ere ez nuen jakingo, auskalo. Kontua da bi herririkidek bizia galdu zutela egun hartan; ama-seme batzuk: Argi eta Iñaki. Semea/anaia ikustera zihoazen Almeriara. Kartzelan zegoen. Alegia, etxetik mila kilometrora, eta hamar ordura urrunduta. Eta auto istripu batez hil ziren ama-semeak, Tobarran, Albaceten.

Lasarte-Oriako Udalak egin die orain aitortza, aho batez, urrunketaren biktima izan zirela biak. Eta haiek bezala, apurka ari dira errekonozimendu hori jasotzen Espainiako eta Frantziako gobernuen espetze politikaren muturreko neurrien ondorioz bizia galdu dutenek. Bada urrats bat, gainontzeko euskal presoak hurbiltzea den bezala. Batzuk ez dugulako Almeria ezagutzen, baina bai Kordobara bidean dauden hamasei ordu eta 1.600 kilometroak. Eta, horrelakoetan, Mezquita eta patio txuri gutxi. Astelehenean egin zuten publiko Lasarte-Orian lortutako akordioa, Javi Gallaga presoaren urtebetetze egunean.

Ederra litzateke nozilla sandwichak dauden merendola batean ospatu ahal izatea, baina, oraingoz, Kordobara bideko restop bateko tostada batekin konformatu beharko.

MAITE

ESTETIKA ARETOA

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Solariuma
- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a

Eskura ezazu opari-txartel moduan!

Zerbitzu mistoak

Zure burua maitatzea da garrantzitsua

Oparitu ongizatea zure bihotzari

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



Ostegun eguerdian kontzentratu ziren herriko hamarnaka ostalari, Okendo plazan. Amaitzean, txalo egin zuten. TXINTXARRI

Ziurgabetasunaren aurrean, protesta

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren behin-behineko erabakia tarteko, ostalari ugari atek berriki dituzte asteon, baina ez dakite noiz arte, eta nola; LABI batzordeak iragarriko duenaren zain daude. Bien bitartean, haien egoera salatzen eta "soluzioak" eskatzen jarraitzen dute

Sagardo denboraldiaz gozatzeko itxaron beharko dute herritarrek

Otsailaren 5etik abian da aurtengo sagardo denboraldia, baina eremu gorriko herrietakoekin ezin izan dituzte atek zabaltu, behintzat aste honetara arte. Orain, EAEko Auzitegi Nagusiak ostalaritza zabaltzeko baimena eman arren, zalantzak dituzte herriko sagardogileek

Txintxarri

Pasa den ostiralean abiatu zuten, ofizialki, 2021eko sagardo denboraldia, otsailak 5. COVID-19ak eragindako osasun egoera medio, denboraldi berria iragartzeko Sagardo Berriaren Egunk, ordea, ez da izan aurtengoan. Sasoi martxan jarri arren, sagardotegi askok ezin izan dituzte atek zabaltu, ez gutxienez asteazkenara arte, eremu gorriko herrietako taberna eta jatetxeak itxita egon baitira orain arte.

Asteartean, otsailak 9, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi zuen eremu gorrian dauden udalherrietako taberna eta

jatetxeak ireki ahal izatea, eta, horren aurrean, Lasarte-Oriako Otegi sagardotegiarekin eta Zubietako Astiazaranekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak zein egoeratan dauden jakiteko. Otegi Pili Mercader atsekabetuta agertu da. Momentuz, martxora arte, gutxienez, ez du irekitzeko asmorik agertu.

Aitortu du zaila dela bizi duten egunerokora moldatzea. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ostalaritza berrirekitzeko baimena eman arte ezin izan dituzte sagardotegiko atek zabaltu, eta orain, martxan jartzeko aukera eduki badute,

baina, momentuz, itxita jarraitzea erabaki dute: "Ez dakigu zein neurri iritsi daitezkeen hemendik egun batzuetara, agian berriro itxi beharko dugu eta horrela lan egitea oso zaila da".

Iazko denboraldi ia osoa (otsailetik aurrera) itxita eduki zuten sagardotegia, eta iaz ekoizitako sagardoa aurtengo denboraldirako gorde dutela jakinarazi du Mercaderrek. Horrekin batera, 2.600 litro sagardo erosi dituzte aurtengo denboraldirako. Gauzak horrela, ekoiztu duten sagardoa botilan erosteko aukera eskainiko dute: "Martxora arte horrela egingo

Txintxarri

Bolo-bolo dabil aste honetako albistea: eremu gorrian dauden herrietako –Lasarte-Oria da horietako bat– taberna eta jatetxeei negozioak irekitzeko baimena eman die EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak, behin-behinean, auzia sakonago aztertu eta behin betiko epaia eman arte. Horren ondorioz, herriko ostalari ugari pertsiak igo dituzte egun hauetan, abendu erdialdetik indarrean dauden baldintzak betez: terrazetako mahai bakoitzean gehienez ere lau lagun, 06:00etan ireki eta 20:00etan itxi, barran ez kontsumitu eta lokalen barrualdean mahaietan eserita... Ikusteke dago datozen egunetan neurri horien arabera lan egin beharko duten, baldintza horiek murrizten edo lasaitzen ote diren –azken horrek ez dirudi oso probalea– edo berriz itxi beharko ote duten, LABI aholku batzordeak gaur iragarriko baititu neurri berriak, ostiralarekin.

Lasarte-Oriako kaleko giroa berpiztu egin da apur bat, egoera ziurgabea izanik ere, irekitzea erabaki baitute herriko taberna eta jatetxe askok. Lokaletan bezeroak hartzen hasi badira ere, ez dituzte protesta-ekitaldiak alde batera utzi, eta ostegun eguerdian

kontzentratu ziren Okendo plazan, Ostalaritza Lasarte-Oria taldeak egindako deiarri erantzunez. *Nik ostalaritza babesten dut* leloa irakur zitekeen manifestariak erakutsi zituzten afixetan. Horrez gain, txilibituak eta kazerolak eraman zituzten, haien aldarriak are ozenago entzun zitezkeen. Bizi duten egoera "prekarioa" nabarmendu zuten, eta "konponbideak" emateko eskatu agintariei.

Berriro irekitzeko baimena

Otsailaren 9an jakinarazi zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartu egin zuela erkidegoko ostalaritza elkarteetako ordezkariak aurkeztu zuten helegitea. Txosten bat argitaratu, eta, besteak beste, azpimarratu zuen sektore horretako negozioak irekitzeko ez ziola zertan "arriko larririk" eragin osasun publikoari, indarrean dauden osasun-neurriak betez gero.

Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen errespetatu egiten duela erabakia, baina ez datorrela bat, Bingen Zupiria bozeramaileak astearte arratsaldean zahatu zuenez. "Pandemiari aurre egiteko tresna bat kendu dio auzitegiak Lakuari; gure ahalmena ahulagoa da orain".

dugu, gero ikusiko dugu zein den animoa eta egoera".

Astiazaran sagardotegiko Ion Astiazaranek ere ez ditu etxeko atek zabaltzeko, gutxienez ostiralera arte. Neurri berriei egokituak zerbizua eskaintzeko baliabide guztiak prest ditu: "Erosi ditugu sagardoa zerbitzatzeko pitxarra gardenak, eta neurri guztiak hartu ditugu, baina, ostiraleko LABI batzordearen bileratik etor daitekeena jakin arte behintzat, ez dugu sagardotegia irekiko".

Otegi Pili Mercaderrek bezala, lan egiteko zailtasunak azpimarratu ditu Astiazaranek: "Neurri murriztaileak egun batetik bestera aldatzen dira, eta horrek, gure egoera ere bat-batean aldatzen du. Horrela lan egitea oso zaila da".

Aurtengo denboraldia prestatzeko modua ere ez da izan urterokoa Astiazaran sagardotegian: "Etxekoekin eta gertukoekin prestatu dugu dena, eta material aldetik ere oinarrikoena erabili dugu".



Pili Mercader. TXINTXARRI



Ion Astiazaran. ION ASTIAZARAN

Herria egiteko moduez hausnartzeko

"Komunitatea elikatzeke eta Lasarte-Oria aberasteko" helburuz, 'Herrigintzen' prozesua jarri du martxan EH Bilduk. Datozen bi asteetarako lau solasaldi antolatu ditu, Antonio Mercero gunean. Pandemia dela medio, aurrez izena eman behar dute interesa dutenek

Txintxarri

Jarduera fisikoa, hezkuntza, sozioekonomia eta kudeaketa-eredua. Lau gai, eta beste hainbeste mahai-inguru, datozen bi asteetan. *Herrigintzen* izeneko egitasmoa jarri du martxan Lasarte-Oriako EH Bilduk; aipatu solasaldi horiek antolatu ditu, motorrak berotu eta bideari ekite aldera. "Gure politika egiteko moduaren muinetako bat da herritarrekin lan egitea". Antonio Mercero gunean izango dira hitzaldiak, 18:00etatik 20:00etara. COVID-19aren pandemia dela kausa, hitzaldietara joateko interesa dutenek aurrez izena eman behar dute, 683 31 98 21 telefonora edo lasarte@ehbildu.eus helbide elektronikora idatzita. Euskaraz ariko dira gonbidatuak eta dinamizatzaileak. Ikus-entzuleren batek zuzeneko itzulpen zerbitzua behar izatekotan, aurrez eskatu behar du, eta EH Bilduko kideekin harremanetan jarri, lehen aipatutako bideen bitartez.

Herrigintzen egitasmoaren baitako hitzaldi guztiak 18:00etatik 20:00etara izango dira. Antolatzaileek grabatu egingo dituzte, eta ikusgai jarri gero. Datorren asteko asteartean izango da lehen mahai ingurua, hilak 16. Jarduera fisiko inklusiboen gainean solastuko dira Joxean



'Zaintza lanen demokratizaziorantz' saioa egin zuen EH Bilduk, 2020ko abenduan. TXINTXARRI

Unsain Iraola, Izar Agirretxe Iradi eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta. Bi egun beranduago, hezkuntza gaiak jorratuko dituzte Itziar Ostolaza Galdosek, Nora Salbotx Alegriak eta Maite Azpiazu Errazkinek.

Partaidetza oinarri

Otsailaren 22an, astelehenez, sozioekonomiaren gaineko hitzaldia egingo dute. Estitxu Eizagirre Kerejeta, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra eta Karmele Salsamendi Olasagasti gonbidatuko dituzte. Azkenik,

hilaren 26an, ostegunarekin, Nerea Zubia Blazquez, Asier Etxenike Ugarte eta Gorka Lizarraga Erro etorriko dira kudeaketa-ereduari buruz hausnartzera.

Gonbidatu guztiak "adituak eta arituak" dira euren alorretan, EH Bilduk zehaztu duenez. "Ikuspegiak elkarbanatu, ereduak ezagutu eta guztion artean hausnartuko dugu mahai inguruetan". Koalizio subiranistak nabarmendu du "partaidetzan oinarritzen diren egiteko modu eta kudeaketa ereduaren aldeko apustu irmoa" egin duela.

Lasarte-Oriak bere 35. urteurrena beteko du astelehenean

Otsailaren 15ean, Lasarte-Oriako bandera Udaletxe Zaharreko balkoian jarriko du Udalak egun osoan zehar

Txintxarri

Otsailaren 15ean 35 urte beteko dira Lasarte-Oria herri bilakatu zenetik. Bide luzearen ostean, 1986ko otsailean lasarteoriatarren aspaldidaniko nahia bete zen, herri independentea izatea. Egun hori gogoratu eta herriaren urteurrena ospatzeko asmoz, otsailaren 15ean, astelehenearekin, Lasarte-Oriako bandera udaletxe zaharreko balkoian jarriko da.

Nahiz eta 1867an lehen pausoak eman, 1975ra arte ez zen independentziaren alde lan egingo zuten lehen gestora sortu.

1982an, Lasarteko Udala osatzearan alde agertu zen Foru Aldundia, eta gauzatzen ari ziren espediente "lehenbailehen" amaitzea eskatu zuten.

1985. urte amaieran, berriz, Urnietako, Hernaniko eta Andoaingo Udalbatzarrek Lasarte-Oriaren desanexioa adostu zuten, eta, 1986ko otsailaren 15ean, Brigitarren komentuko kaperan, udal berriaren lehen urratsak zuzenduko zituen Batzorde Kudeatzailea eratzeko bilkura egin zen. PSE, EAJ, HB eta EE alderdietako kideek osatu zuten.



TXINTXARRI

Zelaia eta Barbadori elkartasuna

Ernai Lasarte-Oriak deituta, hamarnaka lasarteoriatarrek parte hartu zuten otsailaren 6an Okendo plazan egindako elkarretaratzean. Espainiako Auzitegi Nazionalak Aitor Zelaia eta Galder Barbadori ezarritako launa urteko espetxe zigorra gaitzetsi eta elkartasuna adierazi zieten bi gazte arabarrei. Auzia salatzeke *Ankerkeria Stop* herri egitasmoaren testuinguruan kokatzen da ekintza.

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan...
gertutasunez eta euskaraz



Jarraitu herriko albisteak sarean

www.txintxarri.eus



ikasi > sortu
elkartzeko > hausnartu
herri
gin
tzen

Nolako Lasarte-Oria
nahi eta behar dugu?

Otsailak 16, asteartea
KIROLA

Otsailak 18, osteguna
HEZKUNTZA

Otsailak 22, astelehena
SOZIOEKONOMIA

Otsailak 26, ostirala
KUDEAKETA EREDUA

Jarduera fisiko inklusiboak

Udaletik, eskolatik, herrigintzatik...
Herri hezitzaileak sortzen

Ekonomia jendarte baten beharrei erantzuteko
tresna gisa

Herritarren parte-hartzea politika publikoetan:
zertaz ari gara, nola eta zertarako?

18:00 · Antonio Mercero aretoa
Eman izena: 683 319 821 edo lasarte-oria@ehbildu.eus

ehbildu

Itsasoa ezagutzeko aukera, otsailean zehar

Lasarte-Oria itsaso zabalean murgildu da asteon: hasi da CIMASUB zinema zikloaren XIII. edizioa. Dokumentalak eta bestelako ikus-entzunezkoak eskainiko dituzte hilaren 15ean eta 22an, kultur etxean; argazki erakusketa, berriz, hilaren 26ra arte egongo da zabalik

Maddi Zaldúa-Iñigo G. Sarobe

CIMASUB itsaspeko zinema zikloa hamahirugarren urtez ekarri dute herrira Real Sociedad taldeko urpekaritza sailak, Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Lehen emanaldi-sorta otsailaren 8an egin zuten, 19:00etan hasita. Ordu batzuk lehenago, hilaren 26ra arte ikusgai egongo den argazki erakusketa inauguratu zuten udal ordezkariak.

Jesus Mari Egizabalek eta David Sanchezek –Danok Kide eta Real Sociadadeko ordezkariak dira, hurrenez hurren– aurkeztu zuten aurtengo CIMASUB zikloa, COVID-19aren pandemia lehertu zenetik aurrenekoa. "Poza ematen



Jesus Mari Egizabal eta David Sanchez, aurtengo CIMASUB aurkezten. TXINTXARRI

du, bizi ditugun garai zail hauetan, aurreko urteetan adina lasarteoriatar ikustea hemen eserita", adierazi zuen Egizabalek.

Itsaspean dagoena erakutsi eta ezagutarazteko asmoz antolatzen dute CIMASUB. Ikus-entzuleak liluratzeko, eta kontzientziatzeko ere bai: "Zabortegi bezala erabiltzen ari gara itsasoa", ohartarazi zuen Sanchezek. "Ereindakoa jasotzen dugula esaten dute, eta beste behin, argi geratu da hori: bizitzaren ari garen pandemia ez da kasualitatez iritsi guregana". COVID-19a gora, koronabirusa behera, kultura "segurua" dela nabarmendu du itsaspeko zinema zikloaren zuzendariak. Bi proiektio gehiago egingo dituzte, hilaren 15ean eta 22an, kultur etxeako auditorioan, 19:00etan. Bertan jaso behar dira gonbidapenak; ikus-entzule bakoitzeko, gehienez, bi.

Gaur egun helduak direnak ez ezik, etorkizunean halakoak izango direnak ere kontzientziatu nahi dituzte antolatzaileak. Txikizikloa egin zuten otsailaren 8an: 110 ikasle joan ziren Manuel Lekuona kultur etxera, itsasoa zer dagoen deskubritzera. "Ikaragarria izan da, eta gaztetxoek sekulako

interesa erakutsi dute: galderak egiteko txanda eten egin behar izan dugu azkenerako, denborarik gabe geratu baikara", jakinarazi zuen Sanchezek. Aurkezpena amaitu aurretik, txalo zaparrada eskatu zuen Egizabalentzat: "Miresgarria da alboan dudan pertsona honek herrigintzan egiten duen lana".

Argazki erakusketa

Arestian esan bezala, astelehen arratsaldean inauguratu zuten CIMASUB itsaspeko zinema zikloaren argazki erakusketa. Arratsaldeko laueta bildu ziren udal ordezkariak, itsaspeko zinema zikloaren zuzendari David Sanchez Carretero eta Danok Kide elkartearen ordezkari Jesus Mari Egizabal, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian. Denek elkarrekin ikusi dituzte erakusketa osatzen dituzten argazkiak. 365 argazki jaso dituzte antolatzaileek, eta, horietatik 25 aukeratu dituzte.

Hilaren 26ra arte ikusi ahalko da erakusketa, 17:00etatik 20:50era arte. Munduko hainbat tokitako irudiak bildu dituzte, baita Euskal Herrikoak bertakoak ere.

Iragan hurbileko borroka, pantailan

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalei buruzko zikloa abiarazi du asteburuan. Hasteko, duela hamarkada gutxi puri-purian zeuden bi mugimendu gogoratzeko edo ezagutzeko aukera izan dute ikusleek: antinuklearrak eta intsumisioa

Maitane Aldanondo

Bizitzak buelta asko ematen dituela topiko ezaguna da, baina halako guztiek bezala, egiatik ere badu. Orain ia pentsaezinak diren zenbait egoera, errealitate izan ziren duela hamarkada gutxi arte; eta ezinezko zirudien eraldaketa gizartearen ekintzaren emaitza izan zen, hein batean.

Okendo Zinema Taldeak bi euskal dokumental ekarri zituen Manuel Lekuona kultur etxera pasa den asteburuan, bakoitza joan den mende amaierako bi aldarrikapen lotuak. Aretoaren mugak muga, herritar askoren arreta piztu zuten bi emanaldiak, baita ondoren izandako solasaldiak

ere. Lehen saioan, amaiera ordua urratu bazuten, bigarrenean, 21:00etako langa gaindituta eten behar izan zuten. Agian, hizlariak bezala, aretoan zeudenetako batzuek ikus-entzunezkoetan jasotakoa euren azalean, bertatik bertara, ezagutu zutelako.

Ostiralean, zentral nuklearren aurkako mugimenduak hartu zuen pantaila. Sabino Ormazabal kazetariak idatzitako gidoia Bertha Gaztelumendik *Ez eskerrik asko! Gladysen leihoa* bilakatu zuen 2019an. Hain zuzen ere, 40 urte bete zirenean Tuteran egindako manifestazio baketsu batean Gladys del Estal 23 urteko gaztea guardia zibil batek tiroz

hil zuenetik. Horren berri emateaz gain, mugimendu anitzaren kide askoren lekukotza biltzen du.

Helburua erdietsi zuten heinean, arrakastatsua izan zen beste borroka baten txanda izan zen larunbatean: derrigorrezko soldaduskaren aurka egin zuten intsumisioa. Lander Garrok *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* lanean sei intsumisio nafarren bizipenetik abiatuta sortu du kontakizuna. Protagonistetako batek, Jaxin G. Viniegrak, egindakoaren garrantzia azaldu eta bere bizipena partekatu zuen. Alboan, LATO taldeko Fernando Vaquerizo eta Alvaro Marcet intsumisio askoren abokatu izandakoa.



Herritar ugari bertaratu zen bi egunetan zineklubeko saiora. TXINTXARRI



Jaxin G. Viniestra nafarra intsumisio mugimenduaz mintzatu zen. TXINTXARRI

Datorren urteko Euskal Inauterietarako prest

Osasun egoera tarteko, izurria hasi zenetik hamaika ekimenekin egin dute bezala, Euskal Inauteriak modu alternatiboan ospatzea erabaki du Ttakun Kultur Elkarteak. Ttakunenean elkartu dira, larunbat eguerdian, lasarteoritar gazte eta helduak

Maitane Aldanondo

Ez dantza koloretsurik, ez itunik, ezta surik ere. Ohiko urte batean, Kaxkamalo erreko zuten xomorroekin babes akordioa sinatu ondoren, eta urtebetez, herria gaitz guztietatik salbu legoke. Aurten, ordea, beraiek ere gairik ezin duten zomorrotan bertan behera utzi ditu Euskal Inauteriak. Ospatzea garrantzitsua denez, modu sinbolkoan bada ere, Ttakun Kultur Elkarteak festa giroaren zenbait printza ekarri ditu.

Bi tailer burutu zituzten larunbat goizean. Ttakunenean alde batean, dozena bat haurrek garai bateko Euskal Inauterietan

erabili ohi zituzten kareta ardatz hartuta, maskara dotoreak margotu zituzten, antolatzaileak emandako materiala, etxetik ekarritakoa eta sormena baliatuta. Urmargoak, argizari margoak, koloretako errotulagailuak, oihal zatiak, hostoak edota purpurina erabilia, bakoitzak bere gustura eta estiloan ukitu berezia eman zion maskara zuriari.

Beirazko hormaren beste aldean, moztu eta josi aritu ziren heldu eta haurrak. Ione Artolak lagunduta, datorren urterako txantxo jantziak prestatzen hasi ziren. Neurtu eta moztu berak egin zuen, gainerakoa, berriz,

partaideei egokitu zitzaie. Jostorrazarekin hari koloretsuak pasa eta korapiloak egiten aritu ziren, baita aurrerago gehituko dizkieten oihal zatiak moztzen ere. Elkartearen alde honetan buru-belarri aritu zirenak helduak izan ziren, haurrek nahikoa lan izan baitzuten lastozko kapelak buruan batetik bestera korrika edo jolasean.

Ordubete luzeko tailerrak amaitu zirenean, txantxo jantziarako materialak bildu eta beharrezkoa hartu zuten partaideek. Aurretik hamabi hilabete dituzte, ondo bidean, soinean ipini eta dantzarako prest izateko.



Txikiak ederki apaindu dituzte euskal inauterietarako maskarak. TXINTXARRI



Txantxo jantziak egiteko taldean ere ederki aritu dira guraso eta haurrak. TXINTXARRI

Mozorrotu, parte hartu eta eskuratu sariak!

Ttakun Kultur Elkarteak inauterien izpirituari eutsi nahi izan dio aurten, eta mozorro lehiaketa antolatu du. Herritarrei dei egin diete mozorroak jantzi eta argazkiak bidaltzera anima daitezen. Familientzat, gazteentzat eta helduentzat izango dira sariak

Txintxarri

Umore ona eta irudimena sustatzeko helburuarekin, mozorro lehiaketa antolatu du Ttakunek, eta herriko bizilagunak gonbidatu nahi ditu mozorro original bat pentsatzera eta prestatzera. Horrez gain, etxeetako leiho eta balkoiak apaintzera ere animatu nahi dituzte.

Aukeratutako gaia artea da. "Artearen bidez ideiak, emozioak eta, oro har, munduaren ikuspegia adieraz daitezke. Arkitektura, eskultura, dantza, musika, zinema, pintura... Herriko artista guztiei balio diezaietete inspiratzeko eta mozorro original bat asmatzeko.

Bakarka, lagunekin edo familiakoekin mozorrotu daitezke herritarrek lehiaketan parte hartzeko. Hiru kategoria ezarri dira: batetik, familiak (9 urtera arteko haurrak); bestetik, gazteak (10 eta 16 urte artekoak); eta, hirugarrenik, helduak (17 urtetatik aurrera).

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bat aurkeztu dezake, originala eta gaiarekin bat datorrena. Argazkian norbanakoak, gehienez lau pertsonaz osatutako taldeak edo elkarrekin bizi diren senideak batera ager daitezke.

50 euroko sei opari-txartel banatuko dira mozorrorik original eta onenarentzat; maila bakoitzeko

бина sari (irudian ikus ditzakezue). Sari bat herritarrek aukeratuko dute euren bozkekin, eta, bestea, lau lagun ez osatutako epaimahai batek. Argazkilaria batek, jostun batek, ile-apaintzaile batek eta aktore batek deliberatuko dute.

Argazkiak TXINTXARRI aldizkari webgunera igo edo 646 82 44 66 Whatsapp zenbakira bidali beharko dira otsailaren 16a bitartean. Argazkiaren izenburuak mozorroarekin zerikusia izan behar du.

Otsailaren 17tik 21era bozkatu ahal izango dira webgunean bertan. Epaimahaiaren erabakia, berriz, 2021eko otsailaren 22an jakinaraziko da.

Bidali argazkiak:
WWW.LABUR.EUS/LASARTEORIA
 edo 646 82 44 66 Whatsapp zenbakira
 otsailaren 11 eta 16a bitartean

<p>SARIAK</p> <p>TIBERIA MATE 50 euro dendan erabiltzeko</p> <p>GOXOCI zure betiko denda</p> <p>GOXOKIS 60XUA DENDA</p> <p>Harategia Urdaitategia jaizkibel Gernikera Charroa</p> <p>OREAMA</p>	<p>FAMILIAK (9 urte arte)</p> <p>BOZKA GEHIEN 50 euro dendan erabiltzeko</p> <p>EPAIMAHAIA 50 euro dendan erabiltzeko</p> <p>GAZTEAK (10 urtetik 16 urtera)</p> <p>BOZKA GEHIEN 50 euro dendan erabiltzeko</p> <p>EPAIMAHAIA 50 euro dendan erabiltzeko</p> <p>HELDUAK (17 urtetik gora)</p> <p>BOZKA GEHIEN 50 euro dendan erabiltzeko</p> <p>EPAIMAHAIA 50 euro dendan erabiltzeko</p>	<p>SARIAK</p>
--	---	----------------------

txintxarri

PLAZAN BAZAN

S	T	I		A	L
	O				S
L			T		I
	I	O			L
I	T	A			
		A			I

Otsaileko Sudokua


Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Jesus, Maria eta Jose

NESKA-MUTILAAA...



Handitik txikira



Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 6.

Margotu



engainaria

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.



Beti jan eta beti gose

Erreparatu ongi irudi hauei. Hau da kuxidadaei bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzen al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.


MAHAIAN DAGOEN EZER EZ UKIT I

GONBIDATUAK DITUGU ETA





Dutxara!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.



Zu bai Hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



Atletak, markaz marka, probetan aurrera

Maidar Rekondok Gipuzkoan pisu-jaurtiketan orain artean erregistratu den laugarren markarik onena lortu du, 13,29 metro; marken kontroleko saioan eta pista estaliko Espainiako txapelketan egotea espero dute Ostadar Atletismoko kideek

Txintxarri

Ostadar SKTko atletak bi proba izan zituzten iragan asteburuan: disko-jaurtiketako proba librea eta marken kontrol proba. Bai proba batean, bai bestean, Ostadar SKTko atletak lan ederra egin zuten.

Oscar Goikoetxea Ostadar SKTko prestatzaileak azaldu digunez, asteburuan Gipuzkoako Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu behar zen. Eusko Jaurlaritzak, ordea, ez zion baimenik eman Gipuzkoako Atletismo Federazioari, eta, horregatik, proba murrizketa egoteaz gain, Euskadi, zein Espainiako txapelketarako baliaerriak diren marken kontrol-proba soilean geratu zen.

Ondorioz, Ostadar SKTko zazpi atletak parte hartu zuten Donostiako Antonio Elorza belodromoan antolatatu zen marken kontrolean, larunbat arratsaldean. Herriko atletak pisu-jaurtiketa proban eta luzera-



Maidar Rekondo (ezkerrean) eta Oihana Igariz (eskuinean) artxiboko irudian. OSTADAR ATLETISMO

jauzian lortu zituzten markarik esanguratsuenak.

Maidar Rekondok, esate baterako, Gipuzkoan orain arte erregistratu den laugarren markarik onena egin zuen pisu-jaurtiketa proban. Herritarra

nagusi izan zen proban, hasieratik, eta 13 metroetara iritsi zen atleta bakarra izan zen: bere marka, 13,29 metro.

Probako buru jarri zen hasieratik 12,15 metroko jaurtiketa bati esker, eta beste

bi saiakeretan marka berdindu zuen. Azken jaurtiketan lortu zuen bere marka pertsonala 70 zentimetroetan ontzea.

Marka horri esker, Espainiako zortzi onenen artean egoteko aukerak ditu Lasarte-Oriako atletak eta, ondorioz, hurrengo astean Madrilan jokatu den pista estaliko txapelketan egotea espero dute Ostadar Atletismo saileko kideek.

Proba berean, Ostadar SKTko taldekide Oihana Igarizek ere bere marka hobetu zuen 11 metroak igarota. Igarizek bosgarren jaurtiketan lortu zuen 11,04 metroetara iristea.

Luzera-jauzian ere, Ostadar SKTko atleta bat izan zen buru, Enara Gonzalez.

Bost metroetatik igaro zen atleta gaztea ia saiakera guztietan eta, azkenean, 5,28 metroetako jauzia egin zuen.

Aurreko asteburuan Euskadiko Txapelketan lortutako hirugarren postuak eta proba honetan lortutako markak "sasioan" dagoela erakusten duela nabarmendu du Goikoetxeak.

Rekondok ere parte hartu zuen proba horretan, 4,81 metroko marka eginez eta gizonezko mailan, federatu mailako lehiaketetan hasi berri zen Alex Alkain gaztetxoak 4,95 metroetara iritsi zen.

200 m. eta 800 m. probetan ere ordezkaritza izan zuen Ostadarrek. Maidar Abete lehiatu zen lehenengo proban eta 28,60 segundoko marka

erdietsi zuen. Bigarrean, berriz, Leire Centenok 2.51,10 markarekin amaitu zuen lasterketa.

Disko-jaurtiketan ere bikain

Hitzordu bikoitza izan zuten Maidar Rekondo eta Oihana Igarizek larunbatean.

Arratsaldean marken kontrol proban bi atletak paper ederra egin bazuten ere, goizean Anoetako Miniestadioan antolatatu zen disko-jaurtiketako proba librean ez ziren motz geratu, eta marka ederrak egin zituzten.

Rekondok 30 metro baino gehiagoko jaurtiketak egin zituen proban zehar, eta, bere azken saiakeran, 40 metroetatik zentimetro batera geratu zen, 39,99 metroko markarekin.

Igarizek, berriz, 30 metroetako langa igarotzea lortu zuen bi jaurtiketetan. Onena 30,96 metroetara iritsi zen.

"Marka onak dira. Kontuan izan behar da eguraldiak ez duela lagundu eta Anoetako miniestadioko disko-jaurtiketa eremua urez beteta zegoela", azpimarratu du Oscar Goikoetxeak.

Asteburu honetan hiru hitzordu izango dituzte Ostadar Atletismoko kideek. Naroa Furundarena 23 urte azpiko Espainiako txapelketan lehiatuko da, Valentzian; Maidar Rekondo eta Oihana Igariz Euskadiko jaurtiketa luzeetako txapelketan izango dira eta marken kontrol proba berria ere jokatu dute.

Buruntzaldea IKTko infantilak ederki, Kontrol Txapelketan

Etengabeko entrenamendu aldaketei aurre eginez, 35 marka pertsonal berri egin zituzten igerilari gazteek

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko hamabost infantilek lehiatzeko aukera izan zuten asteburuan. 35 marka pertsonal lortuz, entrenamendu orduak fruituak ematen dituztela erakutsi zuten Irungo Azken Portu kiroldegian antolatutako Kontrol Txapelketako 3. jardunaldian.

"Gehientzat jarraian lehiatzen ziren bigarren asteburua zen eta, aurreko igandeko saioa emaitzen aldetik apalagoa izan bazen ere, asteburu honetan benetan sentsazio on askorekin geratu gara", azaldu

du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko arduradunak.

Larunbatean, zein igandean lehiatu ziren Apeztegiak prestatutako hamabost igerilari, eta zortzik euren markak ondu zituzten.

Hauek dira marka ondu zituzten igerilariak: June Lopez, 100 m. eta 200 m. libre eta 50 m. eta 100 m. bizkar; Iزارo Audikana, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre; 50 m. tximeleta; 200 m. eta 400 m. lau estiloak; Garazi Etxeberria, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre, 50 m. tximeleta eta 200 m. eta 400 m.



Kontrol-lehiaketan parte hartu zuten infantiletako batzuk. BURUNTZALDEA IKT

lau estiloak; Saioa Elola, 50 m., 200 m. eta 800 m. libre; Julen Azpiroz, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre eta 50 m. bizkar; Iker Gorostegui, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre, 50 m. tximeleta eta 200 m. lau estiloak; Iker Gandia, 50

m. eta 100 m. bular, 50 m. eta 100 m. bizkar, 50 m. tximeleta eta 200 m. lau estiloak eta Jon Pelayo, 50 m. eta 200 m. bular eta 50 m. eta 100 m. tximeleta.

"Asteburu honetan, infantil hauek pixkanaka entrenamendua

barneratzen doazenaren sentsazioa izan dugu, martxoaz gerotik izandako geldialdia eta, ondoren, zailtasun eta etengabeko egokitzapen askorekin egindako martxa berreskuratzea barneratzen ari direnaren sentsazioa", nabarmendu du Apeztegiak.

Buruntzaldea IKTko arduradunak jakitera eman duenez, igerilari horietako gehienek, denboraldia hasi zenetik, hiruzpalau ordutegi aldaketa eta iraupen desberdineko entrenamendualdi izan dituzte. Hala eta guztiz ere, entrenatzeko modua hobetzea lortu dutela azpimarratu du Apeztegiak: "Entrenatzeko moduan izan duten ikaskuntza eta hobekuntza emaitza hauen atzean egon daitekeela uste dugu. Bide horretatik jarraitu behar dugu.

Ttakun

Kultur Elkarteak
1991-2021

Ttakun 30 urte

EGIN ZAITEZ BAZKIDE! 54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk

54€
urtean

ordaindu

guk

Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean

%20ko

kenkaria
izango duzu



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian

On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____


Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Arteaga II.ak etenaldi berria egin behar izan du

Ezker eskuko mina dela eta, lehengo asteburuan ez zuen bikotekako promozioa txapelketako partida jokatu. Bigarren faserako sailkapena "zail" dagoela jakitun, geratzen diren jardunaldietan "lan txukuna" egiten saiatuko da herritarra

Txintxarri

Axier Arteaga Arteaga II.ak ezker eskuko mina dela eta, berriro ere bere jarduna eten behar izan du astebetean. Otsailaren 7an, esate baterako, ezin izan zuen bikotekako promozio txapelketako partida jokatu.

Zabala eta Erostarberen aurkako partidaren ezker eskuko mina itzuli zela azaldu digu herriko pilotariak. "Partidara ongi iritsi nintzen. Bi eskuetan minik gabe nengoen, baina partidaren berriro ezkerreko eskuan mina hasi zitzaidan eta berriro geratu behar izan dut".

Arteaga II.aren etenaldi berriak astebete iraun du. Hala ere, harekin hitz egin genuenean ez zuen argi noiz jokatu ahal izango zen berriro ere. "Ez dago jakiterik. Aste honetako entrenamenduetan zein sentsazio ditudan ikusi beharko dut."

Sentsazioak onak direla dirudi. Izan ere, asteburu honetako partida jokatu baitu Arteaga II.ak. Elizegirekin bikote eginda, Salaberria eta Oier Etxebarria izango dituzte aurrez aurre bihar, larunbata, Iruñeako Labriten.

Lehiaketa

Binakako promozio mailako txapelketako sailkapenean buru belarri ari da Arteaga II.a, Elizegi



Axier Arteaga, Arteaga II.a beroketak egiten. TXEMA VALLES

bikote duela. Ez dute hasiera ona izan. Lehen itzulia bukatzeko partida baten faltan puntu bakarra dute. Hala ere, partidaz partida lehiakortasuna irabazten joan direla nabarmendu du herritarrek, "Lehengo partidetan ikusi zen gure lehiakortasun maila ez zela nahikoa. Azken partidaren, ordea, ongi lehiatu ginen eta ezin izan genuen puntua lortu".

Txapelketako bikoteak konpentsatuak daudela uste du Arteagak. Eta ezker eskuko minak bikotearen jarduna baldintzatu duela argi du. "Gure kasuan, Elizegi debutatu berria den arren, nahiko paper ona egiten ari dela uste dut.

Baina debutatu berria izanik uste dut behar duen laguntza ezin izan diodala eman".

Arteaga II.a hurrengo faseko sailkapena "oso zail" dagoela jakitun da. Horregatik, bere helburuak orain "ahalik eta azkarren eskuak osatzea; kantxan berriro jolastu eta sentsazio onak izatea eta txapelketan paper txukunena egitea dira" onartu du pilotariak.

Horrez gain, buruz buruko txapelketarako prest egon nahi duela aitortu du. "Txapelketa hau eta gero, buruz buruko txapelketa dator eta horretarako puntu-puntu egotea espero dut".



Iraia Iparragirre herritarra, Madrid CFFko jokalarirengandik ihesi. REAL SOCIEDAD

Puntu bat, Champions Leagueko borrokan mantentzeko

Real Sociedad taldeak bana berdindu du Madrid CFFren aurka, eta sailkapeneko seigarren postuan da

Txintxarri

Real Sociedad taldeak puntu bat eskuratu zuen Madrid CFFren aurka, otsailaren 6an jokaturako partidaren. Zubietako zelaian neurtu zituzten indarrak Iberdrola ligako bi taldeek, eta banako berdinketarekin amaitu zen partida.

Norgehiagokaren lehen minutuetan Reala izan zen nagusi. Talde txuri-urdinak aurretik jartzeko bi aukera garbi izan zituen Nerea Eizagirrearen eskutik.

Madrid CFF ere saiatu zen markagailuan aurre hartzen eta saiakera ugari egin zituen. Korner batean etorri zen madrildarren gola. Sara Gonzalezek buruz gainditu zuen Nanclares atezaina.

Natalia Arroyoren taldeak ez zuen amore eman eta gogor jarraitu zuen jokoan. Atsedendira iritsi baino lehen

lortu zuen helburua Realak. Palaciosek area barruan zegoela jaurtiketa gurutzatua egin eta baloia sarean sartu zen.

Hori dela eta, bigarren zatian, bi taldeak garaipenaren bila atera ziren. Nahiz eta 20 minutu faltan hamar jokalarirekin geratu, talde txuri-urdinak behin baino gehiagotan arriskuan jarri zuen talde madrildarren atea. Baina banako berdinketarekin konformatu behar izan zen talde donostiarra.

Iraia Iparragirre herritarrek bere harritxo jarri zuen berdinketan. Hasierako hamaikakoan izan zen, baina 72. minutuan aldatu zuten.

Puntu horri esker, seigarren postuan jarraitzen du Realak eta Champions Leagueko postuen borrokan jarraitzen du. Atzo, esate baterako, bigarren sailkatu den Levanteren aurka partida garrantzitsua jokatu zuen.

Ezohiko negu-udaberriko denboraldia, Hipodromoan

Lau jardunaldik osatuko dute denboraldia. Martxoaren 12an, 19an eta 26an, eta apirilaren 2an jokatu dira

Txintxarri

Jockey Club Españolek Donostiako Hipodromoan negu-udaberriko ezohiko denboraldiko egutegia onartu zuen, otsailaren 8an, astelehenarekin. Honi esker, berriro ere, ezohiko datetan

lasterketak ikusteko aukera izango dute zaletuek.

Martxo eta apirilko lau ostiraletan jokatu dira denboraldi berriko saioak goizeko 11:15etik aurrera. Zehazki, martxoaren 12an, 19an eta 26an,

eta apirilaren 2an izango dira jardunaldiak.

Guztira hogeitaz lasterketa jokatu dira; jardunaldiko, bost. Horiematik lau, hiru urteko zaldi eta behorrei zuzenduak izango dira, eta, gainerakoak, lau urte baino gehiago dituztenentzat.

Eskarmentu handiko jockeyak eta hasiberriak ikusteko aukera izango da, baita ez profesionalak ere. Hasiberriek, bereziki, hiru lasterketa jokatzeko aukera izango dute euren trebezia erakusteko eta amazona eta



Udako denboraldiko irudia. TXINTXARRI

gentlemen mailakoek, berriz, lasterketa bat.

Garaipena, Zarzuelan

Bestetik, Madrilgo Zarzuelako Hipodromoan neguko denboraldian Raul Ramos herritarrek 2021. urteko lehen garaipena eskuratu zuen, Andalucia-Dos Hermanas Hipodromoan Sarian, Eachway zaldetegiko Tacio gidatuz. Lehia ederra izan zuen Mr. Hobs, Chapman Billy eta Anfionen arerioekin. Helmuga-marran bertan erabaki zen irabazlea.


ZORION AGURRAK



Uxue
Zorionak, Uxue, zure 12. urtebetetze egunean! Oso ondo pasa, zure familiaren partetik.



Mariluz eta Eusebio
ZORIONAK aitona!! Zuen 50 urteurrenean ondo pasa! Asko maite zaituztegu. Zuen bilobak Eneritz, Eñaut, eta Laia.



Josune eta Markel
Zorionak eta muxu asko Asierren eta Maddiren partetik!



Alba
Zorionak Alba! Urte bat jada! Muxu bat amaren, aitaren eta Noaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta
Bidali zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus
helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, urtebetetze-
eguna eta nahi duzun testua.
Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako
zorion agurrak.

JAIOTAKOAK

Joanes Mateos Picos. Otsailaren 8n.

HILDAKOAK

Eusebio de Esteban Suescun. Otsailaren 6an.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9
43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:


OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA


9	4				2	6	3
			2	3			
3			9			8	5
		4		5	1		9
2			8	6		5	1
1		7		2			8
	9	5		3		4	2
	1	8			2		
		3	1			8	

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 12




Larunbata, 13




Igandea, 14




Astelehena, 15




Asteartea, 16



Asteazkena, 17



Osteguna, 18



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12 GANDARIAS-URIBE

LARUNBATA, 13 URBISTONDO

IGANDEA, 14 URBISTONDO

ASTELEHENA, 15 DE ORUE

ASTEARTEA, 16 URBISTONDO

AZTEAZKENA, 17 DE MIGUEL

OSTEGUNA, 18 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Xiberoako ikastolak laguntzeko saski bat zozkatuko dugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena otsailaren 28a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646. 82 44 66 (whatsapp)

AZOKA TXIKIA

ETXE BIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje itxi bat alokatzen dugu Sasotetan, 30 metro karratukoa. Bi auto sartzen dira. Autonomoek biltegi bezala ere erabili ahalgo lukete. Garbitegi komunitarioa ere badauka. Harremanetarako zenbakia, 685 78 08 57.

LANA

ESKAINITZA

Biyak Bat adinekoen egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizonezkoen ile-apaintzaile bat. Gainera, taberna kudeatzeko langileak ere behar dituzte. Interesatuak egoitzara hurbildu behar dira asteartean eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

ESKARIA

Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka

persona adinduak zaindu edo tabernetako garbiketara lanak egiteko persona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Persona eskaintzen da umeak zaindu, etxeko garbiketarako, leihoak garbitu, arropa lisatu, orduka adindun pertsonak zaindu edo eurekin pasieran ibiltzeko. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.

Persona eskaintzen da etxeko garbiketara lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Persona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketara lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandeja bat daude. Prezio negoziagarria. Harremanetarako, 696 76 38 68 edo 699 72 33 14.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

IKASTAROAK

ESKARIA

Klase partikularrak emateko prest nago Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei. Harremanetarako zenbakia, 688 64 53 46.

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313 /bentley.ma@gmail.com

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Iñigo Otaegi, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Erakusketa

CIMASUB 2020 jaialdiko argazki lehiaketako argazki irabazleen erakusketa ikusgai jarriko da. Otsailaren 26an itxiko ditu ateak. Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko urazpiko jardueren sailaren laguntzaz antolatutako ekimena.

Manuel Lekuona, 17:00etatik 20:50era.

LASARTE-ORIA Antzerkia

El mono habitado antzerki taldeak *¡Ave, Osos!* antzezlanaren taularatuko du. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Intza Alkainek eta Janire Arroyok Izan Inurri elkartearekin landutako *Hori ez galdu sekula* liburuaren aurkezpena. Minbizia zuzenean zein zeharka bizi izan duten zenbait pertsonen euren testigantzak emango dituzte eta Lide Treku haur eta nerabe psikologoak galera eta dolua lantzeko gomendioak eskainiko ditu. Izena eman behar da.

Ttakunenea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Gaspe Klubeko kideek Tor magoaren *Amaru* ikuskizunaz gozatuko dute. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeako gimnasioan, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Irrien Lagunak taldearen eskutik, *Martinbertsorekin kantu, kontu eta*



LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Gure kaleak Inauterietako kolore, doinu eta alaitasunez beteta egin behar zuten arren, aurten ez da posible izango. Hala ere, hutsunea betetzeko asmoz, Amaraun Klubak *Martinbertsorekin kantu, kontu eta dantza!* ikuskizuna antolatuko du. Ikuskizun honi esker, Martinbertso herriz herri dabil kontu kontari eta bere kontuak kantu bihurtzen ditu. Ikuskizun honetan antzerkia, jolasa eta musika uztartzen dira. Egoerara moldatutako emanaldi honetan dibertsioa ez da faltako, ezta irriak ere.

Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata 13, 17:30ean.

dantza! ikuskizunaz gozatuko dute etxeko txikiak. Gonbidapena behar da.

Manuel Lekuona, 17:30etan.

ASTELEHENA 15

LASARTE-ORIA Tailerra

Amaraun Klubak haur eta familientzako superheroien topaketa antolatuko du. Haurrek superheroi jantzia eraman behar dute eta tailerrean kapak eta antifazak egingo dituzte. Izen-ematea, aisia@ttakun.eus helbidean edo 695 78 53 92 Whatsapp zerbakian.

Ttakunenea, 17:30ean.

LASARTE-ORIA CIMASUB

XIII. Itsaspeko Zinema Zikloaren bigarren saioa eskainiko da:

- *Komodo*. Alex del Olmo Ramon.
- *Madre Mar*. Rubén Crespo Pérez.
- *Tiburones solrayo en El Hierro*. Felipe Ravina Olivares
- *BDE*. Antonio Menor Vives
- *Shades of water – ice*. Tobias Friedrich.
- *Arthropoda Crustáceos*. Vicente Leal Juan.
- *En la mar lloran los hombres*. Julio Junquera.
- *The Patterns of the Ocean - Protecting Indonesia's Manta Rays*. Hendrik S. Schmitt.

Gonbidapena behar da. Pertsonako bi banatuko dira.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEARTEA 16

LASARTE-ORIA Tailerra

Amaraun Klubak haur eta familientzako *Indioak eta bakeroak* topaketa antolatuko du. Tailerrean zaldi bat egingo dute. Erratzaren makila, artile eta galtzerdi potolo zaharrak eraman behar dira. Izena ematea aisia@ttakun.eus helbidean edo 695 78 53 92 WhatsApp zerbakian.

Ttakunenea, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Mahai-ingurua

Lasarte-Oriako EH Bilduk Herrigintzen mahai-inguru sorta antolatuko du. Lehen saioan, *Jarduera fisiko inklusiboak* hitzaldia egingo dute. Eman izena 683 31 98 21 zenbakira edo [## ZINEMA](mailto:lasarte-oria@</p>
</div>
<div data-bbox=)

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Los Croods: Una nueva era
Igandea: 17:00.



LABURPENA

Los Croods: Una nueva era

Zuzendaria: Joel Crawford. **Gidoia:** Kevin Hageman, Dan Hageman, Paul Fisher, Bob Logan. **Istoria:** Kirk De Micco, Chris Sanders. **Argazkia:** Piotr Sobocinski Jr. **Musika:** Mark Mothersbaugh. **Herr.:** AEB (2020). **Iraupena:** 95 minutu.

Ezezaguna ezagutzen

Haurren zinema atalean, *Los Croods: Una nueva era* animaziozko filma eskainiko dute.

Croods familiaren abentura berri honetan bizileku berria aurkitu behar dute. Bilaketa horretan leku paregabe bat aurkitzen dute. Arazo bat dago ordea, dagoeneko familia bat bizi da bertan, Masmejor familia.

Bi familien artean tirabirak sortuko dira. Baina arrisku berri bat sortzen da eta gaizkiulertu guztiak alde batera utziz, bat egin beharko dute etorkizunaren alde borrokatzeko.

Filma Urrezko Globoetako hautagaietako bat da, animaziozko film onenaren mailan.

ehbildu.eus helbidera idatziz. Hitzaldia euskaraz eskainiko da. Itzulpena egingo da izena ematean horrela eskatuz gero.

Antonio Mercero gunea, 18:00etan.

OSTEGUNA 18

LASARTE-ORIA Mahai-ingurua

Lasarte-Oriako EH Bilduk Herrigintzen solasaldi sorta antolatuko du. Bigarren saioan, *Udaletik, eskolatik, herrigintzatik...* Herri hezitzaileak sortzen mahai-ingurua egingo dute. Eman izena 683 31 98 21 zenbakira edo lasarte-oria@ehbildu.eus helbidera idatziz. Hitzaldia euskaraz eskainiko da. Itzulpena egingo da izena ematean horrela eskatuz gero.

Antonio Mercero gunea, 18:00etan.

Galera eta dolua lantzen

Ttakun Kultur Elkarteak eta Izan Inurri egitasmoko kideek liburu-aurkezpena eta hitzaldia antolatuko dituzte larunbat honetarako, otsailak 13, 12:00etan, Ttakunenea elkartearen. Gurasoei eta hezkuntza-gaietan interesa duten pertsonen zuzendutako ekitaldia da.

Lehenik, Izan Inurriren sortzaile Julene Illarramendik eta Miren Cuerdok egitasmoaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Jarraian, *Hori ez galdu sekula* liburu berria aurkeztuko dute. Intza

Alkain eta Janire Arroyo herritarrek ondu dute lan hori, Izan Inurriekin elkarlanean. Ideia non sortu zen eta lanaren edukiak eta ilustrazioen prozesua nolakoak izan den azalduko dute bi egileek eta egitasmoko kideek.

Liburuaren oinarria galera denez gero, ekitaldiaren bigarren zatian gaiaren gaineko testigantzak eta hitzaldia izango dira.

Testigantzen arloan, Izan Inurri egitasmoko kide Illarramendi berak

bere bizipena jakitera emango du eta bestetik, Ixabel Uzkudun herritarrek bere gaixotasuna eta horren ondorioak semei nola jakinarazi zien azalduko ditu.

Lide Treku haur eta nerabe psikologoak itxiko du ekitaldia, Ikuspuntu psikologikotik haurrekin galera eta dolua lantzeko hainbat gomendio emango ditu.

Pandemia tarteko, edukiera mugatua denez, aisia@ttakun.eus helbidean edo 695 78 53 92 Whatsapp zerbakian izena eman behar da.



OHARRA

TXINTXARRI aldizkariak

agenda hau argitaratu duen

egunera arte, bertan

proposatutako ekintzak ez

dute aldaketarik jasan,

koronabirusa dela eta.



ARTISAUTZA tailerra

LH3, LH4, LH5 ETA LH6KOENTZAT.
LARUNBATETAN 10:30-12:00. TTAKUNENEAN:
OTSAILAREN 27TIK MARTXOAREN 27RA.

Izena emateko: www.labor.eus/gzkartisautza

Prezioa: Ttakuneko bazkideentzat 11€ eta ez bazkideentzat 14€.

aisia@ttakun.eus
695 785 392




Izena emateko:
www.labor.eus/amarauhanditan

HANDITAN, ZER IZAN NAHI DUT?

Pirata, sukaldaria, okina, artisaua, artista, lorezaina ...

HH5, LH1 ETA LH2KOENTZAT. (2015, 2014 ETA 2013. JAIOTAKOENTZAT)

ASTEAZKENETAN: OTSAILAREN 24TIK MARTXOAREN 24RA, 17:30ETIK 19:00ETARA.
 OSTEGUNETAN: OTSAILAREN 25ETIK MARTXOAREN 25ERA, 17:30ETIK 19:00ETARA.
 PREZIOA: TTAKUNeko BAZKIDEENTZAT 12€ ETA EZ BAZKIDEENTZAT 15€

MATRIKULA: 9 € TTAKUNeko BAZKIDEAK / 12 € EZ BAZKIDEAK



aisia@ttakun.eus | 695 785 392






txintxarri
 Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
 doan eta euskaraz

“KRISI GARAIAN, PUBLIZITATEA DA INBERTSIORIK ONENA”

**HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
 HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT**

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 